

# ESKOLA ERRESILIENTEEN

gida laburra





# AURKIBIDEA

Ikastetxea aldaketa ekosozialerako aukera gisa	4
Ikastetxean praktikan jartzeko ideiak	6
<b>GUNE EKOSOZIALA</b>	8
<b>GUNE SOZIOEKOLOGIKOA</b>	14
<b>GUNE KULTURALA</b>	20
<b>ETORKIZUNARI BEGIRATZEKO GUNEA</b>	23
Hezkuntza-komunitate erresiliente baten ezaugarri orokorrak	27

# Ikastetxeak aldaketa ekosozialerako aukera gisa

Gure planeta orekan mantentzen duten balditzak zartatzen ari dira. Baldintza horiek mantentzen gaituzte lurreko biztanle gisa ere.

Konturatzen ari gara zer-nolako zailtasun ekologikoak ditigun - askotan hemen daude jada -, baina zailagoa zaigu ulertzea arazo ekologikoek sustriak eta ondorio sozialak distuztela.

Garapen ekonomikoak ekosistemak suntsitu eta komunitate-ehunak hondatu dituen heinean, pixkanaka murriztu egin dira komunitate bat egunero elkartzen den lurralde fisiko bizizari lotutako lekuak eta erakundeak. Eskoletan ehunka pertsona biltzen dira goizero, txikiak eta helduak, familiak eta langileak. Horregatik, eskola, bere izaeragatik, gure komunitateak berreraikitzeke eta ahalduntzeko aukera bat da.



Horietan funtsezko ezaugarri ekosozialak ematen dira: egunero komunitate anitza hartzen dute, lurralde fisiko jakin batean kokatzen dira, pertsonak ikaskuntzaren eta zaintzaren inguruan biltzen dituzte, eta itxaropenez eta etorkizunez beteta daude, baina baita orainaz ere.

Biltoki honetan eskola-orduetatik kanpo dauden bizitza asko gurutzatzen dira. Haurren, haien familien eta bizi diren lurzoruen zailtasunak oso lotuta dauden.

Eta arazo asko lotuta badaude, konponbideak ere lotuta egon daitezke. Interdependentzia horri esker, erresilientziaren kontzentua maileguan har dezakegu, zailtasun-baldetzetan bizitza mantentzeko berregituratzen diren prozesuak aipatzeko. Gure kasuan, ikastetxei lotutako perstonen bizitza eta haien ingurune biofisikoarena. Eskoletan abiarazten diren prozesu horiek haratago iritsi nahi dute, komunitateetara, herrietara, auzoetara.

Ez da soilik «berreskuratzeko» gaiatasuna, aldatzeko gaiatasuna ere bada (egoikitzea/eraldatzea). Horrela ulertuta, iraunkortasuna eta erresilientzia osagarriak dira. Komunitate erresilientea jasangarritasuna bilatzen duen sistema sozial eta ekologikoa da, eta bizitza duinak garatzea ahalbidetuko duten egitura eta harreman berriak berreraikitzen ditu.



# Ikastetxean praktikan jartzeko ideiak

Gida simple honetan ideiak eskaintzen ditugu, batzuk oso zehatzak eta beste batzuk generikoagoak eta anbiziotsuagoak, ikastetxeak beharrezko erresilientzia ekosozialaren eragile bihurtzeko. Badakigu zaila dela horietako asko praktikan jartzea, baina batzuetan aldaketa handiak bideraezinak ziruditen ideietatik datoz.

Helburua ez da nahi den guztia hartzea, baizik eta ekintzara eta egiten dugunaren aintzatespena animatzea- Desatikulazio sozialari aurre egiten dion eguneroko giza topaguneetako bat aprobetxatu beharko da lurrarekin eta bidelagun ditugun izakiekin ditugun harremanak berrantolatzeke.

Proposamenak atal hauetan antolatzen dira:

- GUNE EKOSOZIALA  
Ingurune biofisikoari lotutako eskola
- GUNE SOZIOEKOLOGIKOA  
Eskola komunitate integratzaile gisa
- GUNE KULTURALA  
Eskola kultura-aldaketaren eragile gisa
- ETORKIZUNARI BEGIRATZEKO GUNEA  
Eskola itxaropen aktiboaren sortzaile gisa
- **Hezkuntza-komunitate erresiliente baten ezaugarri orokorrak**



# GUÑE EKOSOZIALA



Ingurune biofisikoari lotu-  
tako eskola





## BIRNATURALIZAZIOA

- Ikastetxearen barruan edo haren inguruan naturagune baketsuak eta biodibertsitatearekiko errespetuzkoak sortzea, ikasleek ezagutu, zaindu eta aire zabalean goza ditzaten.
- Eremu zolatua murriztea eta horren ordezturra jartzea
- Ikastetxeetan edo horien inguruetan birnaturalizazio-proiektuak abian jartzea, hala nola ikasgela berdeak edo atsedeen hartzeko eremu berdeak

## BIODIBERTSITATEA

- Izaki bizidun, animalia eta landare hurbilenak ezagutzea eta zainztea
- Hurbileko ingurumen-arazoak detektatzea. Arazo horiei irtenbideak eskatzeko kanpainak antolatzea
- Intsektuen hotelak, habia-kutxak, txori-janlekuak, gizakiak ez diren animalientzako gune aberrigoak
- Eskolako landaredia zaintzeko patruilak sortzea
- Landareak edo zuhaitzak haztea: izaki bizidun horiek zaintzeko konpromisoa
- Elkargoko biodibertsitatearen katalogo bat sortzea
- Egin ibilbide botaniko eta geologikoak ikastetxetik
- Hegaztiak eta intsektuak ikustea. Animalien aztarnak eta arrastoak, hegaztien ertzak... ezagutzea.
- Okupatzen dugun lurraldeko biodibertsitatea nola desagertu zen ikertzea eta salatzea

## ELIKADURA

- Elikadura orekatua erraztea, fruta eta barazkietan aberatsa, kantitate nahikotan, 0 kilometroan, agroekologian oinarrituta
- Irizpide horiek hezkuntza-komunitatera zabaltzea

- Zailatasun horieri aurre egiten saiatzeko, ikasleek eta haien familiek elikadura osasuntsua lortzeko dituzten zailtasunak ezagutzea (konfidentziasunez)
- Institutuetako kafetegietan aukera ekologikoak sartzea
- Irakasleekin eta familiekin kontsumo-taldeak antolatzea
- Eskola-baratzea abian jartzea, permakulturan eta/edo nekazaritza ekologikoan oinarrituta
- Komunitateko konpostontziak sortzea
- Eskola-jantokietan Km0 elikagaiak eta agroekologikoak sartzea
- Animalia-proteinak murrizten dituzten eskola-menuak diseinatu
- Elikagaiak alferrik galtzea murrizteko praktikak (errazioak askotariko eskaereta egokitzea...)
- Egunero gosari osasungarriak antolatzea (ez prozesatuak, ez azukredunak, etxeakoak)
- Gosarietan zero hondakina lortzea, bilgarri eta ontzi berrerabilgarriekin. Familientzako tailerrak edukiontzi berrerabilgarriak egiteko
- Pobrezia-egoeran dauden familientzako elkarri laguntzeko sareak sortzen laguntzea, elikagai-banku osasungarriekin lotuta.
- Janariaren kudeaketan ikastetxeen autonomia berreskuratzea edo mantentzea (catering aukeraren aurrean)
- Aisialdietan hamaiketako komunitarioak antolatu

## ENERGIA

- Energia berriztagarrien erabilera orokorrenantz jotzea, udalekin eta auzoekin lankidetzan
- Energia-kontsumoak (argia, berokuntza) kontzienteki eta adostasunez murriztea
- Leiho, horma eta teilatuen isolamendua hobetzea, eta pertsianak, atek eta leihoak erabiltzen ohitzea tenperatura erregulatzeko.
- Zentroa tenperatura murrizten lagunduko duen landarediarekon birnaturalizatzea

- Eskolaz kanpoko ordutegian komunitatearentzako babesleku izan daitezkeen gune itzaltsuak eta espazioak sortzea.
- Energia-kontsumoa kalkulatzea eta ikasleek eta familiek kontsumo hori murrizteko proposamenak egitea, ikastetxearen proiektu gisa (eskolako ekoikuskaritza)
- Teilatuak eskaintzea auzoko energia-komunitateetan parte hartzeko, edo horiek sortzeko
- Energia-kooperatibekin hornidura elektrikoa kontratatzea (berriztagarrietan berrinbertitzen dutenak)

### MUGIKORTASUNA, ZARATA ETA AIREAREN KALITATEA

- Ikastetxearen eta etxebizitzaren arteko hurbiltasuna sustatzea (garraioa baino hurbiltasun handiagoa)
- Zentrarako sarbidea erraztea, oinez edo bizikletaz
- Erdigunearen inguruko trafikoa baketzea
- Estres, zarata eta presarik gabeko eskola-bide segururak eskatu eta erraztea
- Bizikletak edo pedibusak antolatu (eskolara segurtasunez bizikletaz edo oinez iristeko antolatutako taldeak)
- Zarata-maila desegokiak ebaluatzea eta salatzea
- Ikastetxeko eta inguruetakoa airearen kalitate-arazoak ebaluatzea eta salatzea
- Eskola Matxinadaren ekintzak babestea (Ikasleen Familien Elkareteek (IFE) sustatutako mugimendua, ikastetxeen inguruetan atmosferaren kutsadura murrizteko)
- Eskolako Matxinadarekin bat egitea: aire garbia eskatzea eskola-inguruneetan

## KONSTUMOAK ETA HONDAKINAK MURRIZTEA


- Ikastetxeko baliabide materialak murriztea, berrerabiltzea, berreskuratzea eta optimizatzea
- Hondakinak kudeatzea zikloak ixten saiatuz
- Elikagaien hondakinak konpostatzea
- Materialen erabilera partekatuak sustatzea (eskolakoak zein pertsonalak)
- Ikastetxeak edo behar duten familiek material didaktikoak, altzariak, baratzea, dekorazio-materiala edo bestelakoak berrerabiltzeko bide erraz eta arinak sortzea
- Material plastikoaren eta konglomeratuen erabilera murrizteko edo kentzeko programak abian jartzea
- Hezkuntza-komunitatea inplikatzea inpaktu ekologiko txikiko materialaren erosketan
- Erosketa-politika bat gauzatzea, ingurumen-iraunkortasuneko irizpidekin
- Arropa-trukeen edo jostauilen aldizkako azoka txikiak antolatzea ikastetxean bertan
- Bizikletak eta bestelako tresnak konpontzeko tailerrak abian jartzea
- Ehungintza sortzailea birziklatzeko tailerrak egitea
- Gailu elektriko eta elektronikoen konponketa sustatzea (familiei eta auzoari irekitako konpontzaileen klubak)
- Zentroko aztarna ekologikoa kalkulatzeko eta murrizten saiatzea

## URA

- Aurresteko sistemak martxan jartzea etxeko erabileretan (txorrotak eta zisternak) eta baratzea eta berdeguneak ureztatzean (tantakako ureztatzearen kontrola)
- Ikastetxeko, herriko edo auzoko ur-kontsumoa ezagutzea, eta hori murrizteko plan orokor bat proposatzea eskola-kanpaina batekin, ikaskuntza-zerbitzu proiektu gisa
- Euri-ura biltzeko eta erabiltzeko sistemak muntatu

## TEKNOLOGIAK

- Denboren edo pantailarik gabeko espazioen kanpainak antolatzea
- Teknologien motxila ekologikoa eta soziala ikertzea eta horri buruz informatzea
- Teknologiekiko adikzioa kolektiboki aztertzea eta horri aurre egiteko estrategiak sortzea
- Mailegu-sistemak eta material elektronikoaren erabilera partekatuak antolatzea
- «Teknologia apalak» eta ikastetxeari aplikatutako ekodiseinua erabiltzea
- Wifi solidarioak sortzea
- Software librea erabiltzea
- «Goi teknologiekiko» mendekotasun elektronikoa murriztea



# GUNE SOZIO - EKOLOGIKOA

Eskola komunitate  
integratzaile gisa



## HURBILEKO GIZARTE-SAREAREKIKO LOTURAK

- Hurbileko erakundeekin lankidetzak eta loturak ezartzea, elkarrekiki onurara bideratuak eta komunitate-harremanak areagotuko dituztenak.
- Auzoko elkarteekin eta/edo IFEekin harremanak izatea
- Auzoari edo herritarrei irekitako ikastetxeetan jarduerak antolatzea. Hezkuntza-arloa edo eskola-eremua soilik haur/nerabeentzako hezkuntza formala delako ideiarekin haustea.
- Mutualitateak edo elkarri laguntzeko sareak sortzea edo erraztea (laguntzeko eta baliabideak trukatzeko)
- Zerbitzurako ikaskuntzako proiektuak egitea
- Boluntariotzako programak, praktiketako zentroekiko harremanak
- Balaunaldien arteko topaketa erregularrak sortzea
- Familiei laguntzea, batez ere ikastetxera iritsi berriei
- Jatorriaren, identitatearen, gaitasunen edo bestelakoen aniztasuna ospatzea, ezagutza-, aintzatespen- eta balorazio-jardueren bidez.

## PARTE-HARTZEA

- Ordezkarri ekosozialen figura edo ingurumen-batzorde bat sortzea, planen jarraipena sustatzeko eta egiteko
- Talde-lanari, dinamizazioari eta taldeen erraztasunari buruz ikastea
- Ikastetxeak hezkuntza-eskaeretatik haratago doazen borroketan parte hartzea
- Ikasleengan eragina duten gaietarako buruzko kontsulta informatuak (eta eztabai-datuak) antolatzea
- Kilma-batzarrak antolatzea ikasleekin eta klimaren aldeko herritarren batzarretan parte hartzea

## SALAKETA ETA PROPOSAMENA

- Salaketa- eta eskari-ekintza publikoetan parte hartzea (osasun publikoa, marea berdea...)
- Ikastetxeak berak salaketa- eta proposamen-ekintza publikoak bultzatzea
- Mikropolitikako proiektuak dinamizatzea (aldaketa zehatzen eskaerak, hala nola erdigunetik gertu dauden kaleak baketzea)
- Proiektuen araberako lana egitea, «mundo justu eta jasangarri batean bizitzeko 99 galderetatik» abiatuta

## ERABILERA PARTEKATUAK

- Zentro erresilienteen tokiko sare bat sortzea, ideiak eta baliabideak partekatzeko
- Ingurumena errespetatzen duten materialen erosketa bateratuak antolatu
- Datu-baseak sortzea, materiala, altzariak, ezagutzak... partekatzeko edo trukatzeko
- Aldizkako azoka txikiak antolatzea bizilagunekin (berrerabiltzeko eta kontsumoak murrizteko)
- Espazioak erabilera anitzekoak izateko moduan antolatzea
- Objektuen liburutegi bat sortzea (erabilera partekatuetan mailegatzeko)
- Eskola-materialen ekonomatuak eta kooperatibak antolatzea
- Denbora-bankua eskolan sortzea: hezkuntza-komunitateko kideen artean zerbitzuak eta trebetasunak trukatzeko ikastetxean bertan arratsaldez eta/edo asteburuetan, denbora trukerako txanpon gisa hartuta
- Doako dendak muntatzea (arropa, haurrentzako materiala, tresnak, etab.)
- Itsulapiko partekatua sortzea sustatzea, kostu ekonomikoa duten jarduerak baztertzailak izan ez daitezen



## AISIA ETA GOZAMEN IRAUNKORRA

- Aisialdi eta gozamen iraunkorra proposatzea (klimaren aldeko pailazoak, zirku eskolak, musika era dantza taldeak, ARTIbismoa...)
- Hainbat espazio dituzten patioak diseinatzea, genero-bazterketak saihesteko
- Ingurumenaren gaineko inolako eraginik duten dibertimenduen zerrenda bat egitea, esperientzia eta harreman osasuntsuetan oinarrituta
- Ikastetxeak eskola-orduetatik kanpo irekitzea, haurren eta gazteen aisialdirako gune gisa
- Ingurune hurbilena ezagutzeko jarduera osagarriak egitea, ingurunearekin konektatzeko
- Gure aisialdiko jardueren eragin sozial eta ekologikoaren azterketa diferentziala egitea
- Ikasleek planifikatitutako txangoak egitea, jarduera horrek ingurumenean duen eragina azagututa
- Pantailarik gabeko eguna aldian-aldian esperimentatzea, bai etxean, bai ikastetxean, familiak barne
- Dramatizazioa eta antzerkia pribilegioak edo ziurgabetasuna bezalako gauzak ulertzeko erabiltzea
- Umorea zailtasunei aurre egiteko eta ondo pasatzeko erabiltzen ikastea
- Mugikorrik gabeko espazioak edo denborak mugatzea
- Patioetan (patio inklusiboak) dinamizazio osasuntsuetarako guneak antolatzea
- Ikasleekin batera jarduera inklusibo eta jasangarrien ideia-bankua sortzea

## PREKARIETATE-EGOERETARAKO LAGUNTZA

- Ikastetxeak ikasleen familiek bete gabe dituzten premiak ezagutzea (etxebizitza, elikadura, energia, zaintza, etab.).
- Behar horieri aurre egiteko antolatzea (familia-taldeak, auzotzarrak, dendak...)



- Elkarri laguntzeko talde autogestionatuak sortzen laguntzea, prekarietateari aurre egiteko, hala nola zaintzan, zailtasun pertsonalen kudeaketan, elikaduran edo babesean laguntzeko taldeak.
- Bekak, laguntzak eta bestelako kudeaketa elektroiko konplexuak eskatzeko prozedura informatikoak erabiltzen ez dituztenei laguntzea
- Salaketa- edo ekintza-plataformetan parte hartzea (etxegabetzeen, pobrezia energetikoaren eta abarren aurrean)



# GUNE KULTURALA

Eskola kultura-aldaketaren  
eragile gisa



## LURRAREN KULTURA BERRI BAR ERAIKITZEA

- Krisi ekosoziala gainditzeko beharrezkoak diren kultura-printzipioak ezagutzea, ulertzea eta onartzea
- Eremu materiala murriztea
- Komunitatea eraikitzea
- Biodibertsitatea babestea
- Zikloak ixtea
- Eguzkitik bizitza
- Bizitza erdian jartzea

## CURRICULUMA ALDATZEAN JOATEA

- Curriculum-aldaketa egitea ikastetxeen barruan, bakoitzak bere ikasgaiari, hezkuntza ekosoziala txertatzeko
- Beste irakasle batzuekin antolatzea, ikuspegi ekosoziala zeharkatzeko (baterako proiektuak)
- Sormena, malgutasuna eta asmena mugiaraztea ziurgabetasunaren aurrean
- Artibismo ekintzak antolatzea. Naturaren estetika balioestea
- Lurrarekiko eta gizakiekiko esker ona zeharkatzea (gure independentzia eta ekodependentzia aitortzea)

## JAKINTZAK TRUKATZEKO GUNEAK

- Helduen eta gazteen jakintza iraunkorrak trukitzea
- Liburutegi bizien sare bat mobilizatzea (herri-jakintzak)
- Arazo ekosozialak komunikatzeko zentro-estrategia bat pentsatzea
- Ekoirakurteta-klubak abian jartzea, erresilientziari, akitibismoari, alternatibei, utopei, agertoki berriei eta abarri buruzko elkarrizketa-gune gisa
- Alfabetatze ekologikoa sustatzea hezkuntza-komunitate osoarentzat

- Ikasturte bakoitzerako oinarrizko gaitasun ekologikoak eta curriculumarekin lotzea
- Eskola ateneo gisa ulertzea
- Tokiko informaziorako sarbidea erraztea
- Konpontzen, konpontzen... irakasteko tailerrak antolatzea.
- Komunitate-aktibismoko tailerrak antolatzea
- Kolektiboki pentsatzea nola egin aurre emozio negatiboari krisi multisistemi-koari: ekoantsietatea, ekonekea, futurofobia...
- Aurre egiteko modu kolektiboak babestea: gainditzea, aldaketari aurre egitea, itxaropena, poza, umorea, aukera...



# ETORKISUNARI BEGIRATZEKO GUNEA

Eskola itxaropen  
aktiboaren sortzaile gisa



## ETORKIZUN DESIRAGARRIAK ETA POSIBLEAK IRUDIKATZEA

- Etorkizun desiragarriak irudikatzeko ariketak egitea eta ametsetan oinarritutako plangintza egitea. Etorkizuneko tailerrak garatzea
- Gaur egun benetako esperientziak bilatzea, etorkizun desiragarri horren parte baitira
- Zailtasun-egoeren simulazioak sortzea (energia-mozketak, eraso arrazistak...) eta gure erantzun erresilientea zein izan litekeen antolatzea
- Ezinezkoak ziruditen gauzak (sufragistak, 15M...) lortu zireneko historiaren adibideak ezagutzea
- Funtsean berekoiak garen ideia eztabaidatzea. Bilatu interdependentzia zoriontsuaren adibideak
- Norberaren bizitzako unerik zoriontsuenak gogoratzea eta diru xahutzerik gabeko eta nahikoa den mundu batean posible izango diren baloratzea.

## ALTERNATIBA BIDERAGARRIEN ERAIKUNTZA ETA SAIKUNTZA

- Parte-hartzea gauzatzea eta ahalduntzea erraztea
- Etorkizun desiragarri horren zatiak proiektatzea, orainaldian eraiki daitezkeenak, eta abian jartzea.
- Praktika iraunkorrak probatzeko laborategi bat sortzea
- Gobernantza horizontaleko eta ikasleekin eta familiekin partekatutako erabakiak hartzeko praktikak abian jartzea
- Aurrekontu parte-hartzaileak erabakitzea eta gauzatzea, ikasleen parte-hartzearekin
- Aldizkako batzar lotesleak egitea



## ASMATU, GOZATU, SORTU, OSPATU

- Itxaropen aktiboaren kontzeptua ulertzea (Johana Macy)
- Ongizatea sortzen diguten doako praktika iraunkorren zerrenda egitea
- Arteak erabiltzea (abestea, dramatizatzea, margotzea...) proposatzeko, ikasteko eta irakasteko.
- Aurkikuntzak, estreinaldiak eta arrakastak ospatzea
- Talde gisa ospatzeko eta gertakari txikiak edo handiak ospatzeko erritu propioak eraikitzea
- Esker oneko ariketak egitea

## BESTE BATZUK GONBIDATZEA: ESKALA ALDATZEA

- Sarea egitea beste ikastetxe batzuekin
- Baliabide-gordailuak sortzea, ikaskuntzak ikasten eta gogoratzen duen erakunde gisa dokumentatzea, eta, behar diren doikuntzekin, beste ikastetxe batzuetarako baliagarriak izan daitezten.
- Irakasle-sareak sortzea elkarri laguntzeko
- Esperientziak zabaltzeko kanpainak sortzea
- Antsietatea ekoakzio bihurtzea
- Erresilientziarako eskolen topaketak antolatzea

Ziur askoz ideia gehiago daudela zerrenda hori osatzeko.




# Hezkuntza-komunitate erresiliente baten ezaugarri orokorrak

Nola laguntzen du hezkuntza-komunitate batek erresilientzia hobetzeko? Alde batetik, bera da azpisistema erresilientea, eta, bestetik, iraunkortasunean eta erresilientzian hezten du (sistemaren gainerakoak gaituz eta eraldaketak sustatuz).

## Hemen dituzu printzipio orokor inspiratzaile batzuk

- Hezkuntza-komunitate osoaren **parte-hartzea eta ahalduntzea** sustatzeko ekimenak. Ikastetxeak osoki demokratizatzea, lehendik dauden tresna organikoak sustatuz.
- Ikastetxe eta komunitate gisa **asmo partekatua eta adostua** sustatzea, krisien kontzientziatik eta iraunkortasunaren horizontetik abiatuta
- Ikastetxearen **“identitatearen”** ikusmoldea ezartzea, inklusioa eta aniztasuna bultzatzeko, eta komunitatean gertatzen den aldaketaren dinamismoari irekita egoteko. Ezaugarri horiek, erresilientziaz bertatik, zailtasunak izatetik indarguneak izatera igarotzen dira.
- **Begirada sistemikoa** integratzea. Komunitateko kideak gaitzea, ikastetxearen ikuspegi sistemikotik eta zentroari modu batean edo bestean lotutako gainerako sistemetatik aztertze eta hitz egiteko.
- **Egokigarritasunera eta autoerlaketara irekitako antolaketakultura** garatzea, hezkuntza-komunitate osoak parte hartutako diseinuari eta ondoriozko aldaketa- eta egokitzapen-itzaropenei zuzendutako azterketaren bidez.
- **Aniztasuna ospatzea** eta ikasleen, familien, irakasleen eta abarren **inklusibotasun**-elementuak izatea (baita giza arlokoak ere)
- Hezkuntza-espazioak espazio **balioaniztun, dinamiko eta moldagarri** gisa definitzea

- Ingurunea hezkuntza-espazio gisa ulertzea (baliabidea izateaz gain), **testuingurua aztertuz** eta, alderantziz, “ingurunea” ikastetxean ere sartzea sustatuz.
- Ahalik eta **aliantza, lotura eta konexio** gehien sortzea “ingurunearekin”
- Zentro iraunkor baterantz aurrera egitea, **kudeaketaren eta eraginkortasunaren** ikuspegitik: energia, ura, hondakinak, mugikortasuna, tresnak...
- Komunitatearen esparruan **mutualitate-loturak** indartzea: eskola-denboraren bankua, jantokia bazkarietara zabaltzea ekarpen kolektibo gisa...
- **Hurbileko erakundeekin** lankidetzak eta konexioak ezartzea, elkarren onurarako
- **Hezkuntza-komunitatearen** ideia indartzea, ikaskuntza-komunitate gisa
- Baliabideen **mugak** ezagutzea eta errespetatzea.
- **Gizarteratzea eta ekitatea** sustatzea. Gabealdiez arduratzea.
- **Autoantolaketa eta autokudeaketa** praktikatzea, baita erabakiak maila egokian hartzea ere
- **Orekari** arreta jartzea: gogoeta, ekintza, ospakizuna eta atsedena
- **Ikaskuntza-sare** bateko kide izatea
- **Ideiak eta ahalmena askatasunez partekatzea**: aniztasuna sustatzeko borondatea, alferrik mugatu beharrean
- Gureaz haratago doazen **beste errealitate** batzuei begirada zabaltzea





# Hezkuntza Arloa Ecologistas en Acción



Maketazioa: Esther Guardamino

Euskera: Xandra Fernández

Irudiak: Qvasimodo

